



DATUEN
ANALITIKA

DATUEN BISTARATZEA

AURKIBIDEA

1. **Zer da Data Storytelling?**
2. **Prozesua**
3. **Bistaratzeko tresnak**
 - **Power BI**
 - **Looker Studio**
4. **Bistaratzeko tresnen abantailak eta desabantailak**

DATA STORYTELLING

- Datuak, bistaratzeak eta narrazioak konbinatzeko artea da, informazioa modu argian eta esanguratsuan komunikatzeko.
- Datu konplexuak istorio ulergarri bihurtzen ditu, eta horrek **inpaktua** eragiten du, **erabakiak hartzen** laguntzen du eta ikusleekin konektatzen du, bai maila intelektualean, bai emozionalean.

“Datuak bistaratzeak berarekin kontakizuna dakar”

PROZESUA

1. Helburuaren definizioa
2. Datuen aukeraketa eta analisia
3. Narratibaren eraikuntza
4. Bistaratzeeen diseinua
5. Aurkezpena

DATA STORYTELLING

1. Helburuaren definizioa:

Zer jakin nahi dugu? Zer kontatu nahi dugu? ¿Zertarako...? Zeini dago zuzendua...? Informatu? Konparatu? Kobentzitu? Aurreikusi? Ekintza bat inspiratu?

DATA STORYTELLING

2. Datuen aukeraketa eta analisia

- Zein dira behar ditugun datuak?
- Zein daturekin erantzungo ditugu galderak?
- Metrika garrantzitsuak identifikatu eta analisi estatistikoak edo esploraziokoak egin insight esanguratsuak aurkitzeko.

DATA STORYTELLING


3. Narratibaren eraikuntza

- Nor da publikoa? Nori iritsi behar zaio informazioa?
- Datuen inguruko historia bat sortu: hasiera (testuingurua), garapena (aurkikuntzak) eta ondorioa (gomendioak edo ekintzak) izango dituen.

DATA STORYTELLING

4. Bistaratzeen diseinua


- Zer da benetan komunikatu nahi dudana?
- Datuetarako grafiko egokiak aukeratzea (barrak, lerroak, mapak, etab.) argitasuna eta erakargarritasuna ziurtatzea.



DATA STORYTELLING

5. Aurkezpena

- Nola erakutsi? informe bat, dashboard interaktibo bat edo aurkezpena...Narratiba eta bistaratzeak formatu irisgarrian konbinatzea



BISTARATZE TRESNAK

- Datuen analisitik lortutako informazioa modu eraginkor, zehatz eta bisualean ikusi behar da, erabakiak modu egokian hartu ahal izateko.
- Gaur egun, datuak aztertzeaz eta optimizatzeaz gain, datuak ondo ikusten laguntzen duten tresnak daude.
- Bi adibide: Power BI, Looker Studio

POWER BI

- Power BI plataforma bateratu eta eskalagarria da enpresa-adimenerako (BI) eta autozerbitzurako, Microsoftek sortua
- Datuei konektatzeko, eraldatzeko eta txostenen edo dashboard-en bidez bistaratzeko aukera ematen du.
- Datuetan oinarritutako erabakiak hartzeko oso erabilia da.

LOOKER STUDIO

- Datuak eta enpresa-adimena hodeian bistaratzeko tresna (Google Data Studio)
- Aukera ematen du panel interaktiboak eta pertsonalizatuak sortzeko zenbait datu-iturritatik abiatuta.
- Informazioa modu bisualean eta denbora errealean aztertzea, partekatzea eta aurkeztea errazten du.

BISTARATZE TRESNEN ABANTAILAK ETA DESABANTAILAK

ABANTAILAK	DESABANTAILAK
Datuen bistaratzea	Interneteko konexiora dependentzia
Atzigarri lainotik	Ikasketa eskatzen dute
Hainbat datu iturriekin integratzeko aukera	Limitazioa bolumen handiko datuak maneiatzean
Interaktibitatea	Diseinu konplexuegietan flexibilitatea falta daiteke
Erabilterraza	Mantenua eta datuen eguneraketa behar da
Datuak denbora errealean eguneratzeko aukera	Segurtasuna eta pribatatasuna
Kolaborazioa	
Pertsonalizazioa	
Informe edo txostenak partekatzea	

ABANTAILAK

- **Datuen bistaratzea:** grafiko eta panel interaktiboak sortzeko aukera ematen dute, datu konplexuak informazio bisual eta ulergarri bihurtzeko.
- **Atzigarri lainotik:** hodeian oinarritutako tresnak dira
- **Hainbat datu iturriekin integratzeko aukera:** Biek hainbat datu-base, hodeiko zerbitzu eta kanpo-aplikazioekiko konexioa onartzen dute, eta hainbat jatorritako datuekin lan egiteko aukera ematen dute.

ABANTAILAK

- **Interaktibitatea:** Bistaratzekak dinamikoak dira, eta, horri esker, datuak denbora errealean azter daitezke iragazkien, segmentazioen eta hautaketen bidez.
- **Erabilterraza:** Interfaz intuitiboak (hasiberri eta erabiltzaile aurreratuak)
- **Datuak denbora errealean eguneratzeko aukera:** denbora errealean konekta daitezke datu-iturrietara, eta automatikoki ematen dute informazio eguneratua.

ABANTAILAK

- **Kolaborazioa:** Talde-lana errazten dute, panelak eta txostenak beste erabiltzaile batzuekin partekatzeko aukera ematen baitute, berrikusteko edo editatzeko.
- **Pertsonalizazioa:** Erabiltzaileek beren beharren arabera diseina ditzakete panelak eta grafikoak, erabilera-kasu bakoitzera egokituz.
- **Informe edo txostenak partekatzea:** Erraza da panelak eta txostenak beste erabiltzaile batzuekin partekatzea, denbora errealean (lankidetzan) edo esteka eta esportazioen bidez.

DESABANTAILAK

- **Interneteko konexiora dependentzia:** Offline aukerak dituzten arren, funtzionalitate osoa interneteko konexio baten menpe dago, bereziki hodeian lan egiteko edo datuak denbora errealean eskuratzeko.
- **Ikasketa eskatzen dute:** Zenbait funtzionalitate aurreratuek, denbora eta ezagutza teknikoak eska ditzakete.
- **Limitazioa bolumen handiko datuak maneiatzean:** Biek datu-multzo handiak onartzen dituzten arren, errendimenduari eragin diezaioke kontsultak edo datu-iturriekiko konexioak behar bezala optimizatzen ez badira.

DESABANTAILAK

- **Diseinu konplexuegietan flexibilitatea falta daiteke**
- **Mantenua eta datuen eguneraketa behar da:** Informazio zehatza eta eguneratua izateko, konexioak eta datu-iturriak behar bezala konfiguratu eta monitorizatu behar dira.
- **Segurtasuna eta pribatatasuna:** Datu sentikorren kudeaketak konfigurazio aurreratua behar ditu segurtasuna bermatzeko eta pribatutasun-araudiak betetzeko, bereziki txostenak partekatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Lanbide Heziketako Sailburuordetza. Lan honek Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioarteko Baimena dauka (CC BY-NC-SA 4.0).

